

Paristik 1975-XII-6'an

Latxaga

A. 14


Pierres Lafitte apaiz agurgarria;

udaberrian Uztaritz'en zurekin egon nintzen, ez dakit oroitzen ote zeran. Apaiza naiz, nere izena Jose Maria San Sebastian, idazle bezala Latxaga izena daromat, berez donostiarra.

Orain Teologi doktoradua bukatu dut ta une ontan euskal linguistikarekin nabil. Ekainan Sorbona'n 3e cycle 'ren lenengo urtea bukatu dut. Nere gaia erran nizun bezala: euskal aditza, Gaia benetan zaila ta garratza. Baiña aurrerana. Korapillo batzuek obeto askatzeko zurekin itz egiteko gogo nabaritzen dut. Nai nituzke ere nolabait zenbait liburu aditzari buruz gaur arkitzen ez miranek. Ortarako, nere ustez, zuk agindu bezala, XIX garren gizaldiko euskal liburuen zerrenda <sup>frantsesku</sup> Ramango nizuke gogotik.

Eskutitz onen bitartez gauz bat bakarrik zugana galdezka nator: nere oporretako geraian, 27-XII'tik 5-I bitarte ortan, egun bat aukeratu al dezakezun, bion artean alkarizketa bat egiteko. Neretzat mesede aundi bat izango litzake. Dana dala, neretzat egun egokia ille onen 27, larumbata, zuk nai zenuken tokian, or Uztaritz'en edo Bayona'n edo agindutako bertze lekuan. Nere aldetik ematen dizudan lanegatik, aurrez eskerrak. ~~ematen dizkizut~~ Beti zure agindua betetzeko pres nago. Otoi ta Oroi.

Biotzez zurea



Jose Maria SAN SEBASTIAN

3 rue des Pretres Saint Severin

Paris 75005